



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2022CONB0012
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK
TITULARRA TITULAR	IRAURGI SASKI BALOI TALDEA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	

AZKOITIKO UDALAREN ETA IRAURGI SASKI BALOI TALDEAREN ARTEKO
HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Javier Zubizarreta Zubizarreta, Azkoitiko Udaleko alkatea eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Maier Lizaso, G20141057 IFK duen Iraurgi saski baloi taldearen izenean eta haren ordezkaritzan.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Iraurgi saski baloi taldearen eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoieta sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioako aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Iraurgi saski baloi taldea irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 1986ko apirilaren 24an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarten Erregistroan CD0000225 zenbakiaren inskribatuta dago.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III.- Iraurgi saski baloi taldea da, herrian saskibaloi arautuan jokatzeko aukera ematen duen entitate oinarritzkoa. Hark ematen die herritarrei saskibaloi federatuan aritzeko aukera, eta prestakuntzaz, antolamenduaz eta alderdi administratiboez arduratzen da.

IV.- Lankidetzaz hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Iraurgi saski baloi taldeak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2021/2022 denboraldia finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.19 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2022. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Iraurgi saski baloi taldeari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Iraurgi saski baloi taldeak aurkeztu duen programa aurrera eramane dezan: 2021/2022 denboraldia, hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.

Baita ere, hitzarmen honen bidez arautuko da Azkoitian saski baloiaren jarduerak. Hitzarmenak zehaztuko ditu bi aldeek erantzukizunak eta haiek egin beharreko ekarpenak

BIGARRENA.- Iraurgi saski baloi taldeak herrian saskibaloia sustatu eta garatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta lan hori egiteko behar diren jarduerak zuzentzekoa ere. Iraurgi saski baloi taldeak ondoren zehazten diren eginkizunak betetzeko konpromisoa hartzen du:

-**ESKOLA KIROLA:** Iraurgi saski baloi taldea herriko ikastetxeekin lankidetzan arituko da, eskola kiroleko saskibaloia aurrera eramateko. Ikastetxeekin eta Azkoitiko Udalarekin adostuko du Iraurgi saski baloi taldeak lankidetzaz hori, hura nola gauzatu ikusteko, eskola kirolarekin zer-nolako eta zenbaterainoko lotura izango duen kontuan hartuz, bai antolamenduaren eta jardueren ikuspuntutik, bai eskola kirolaren kontzeptuzko planteamenduaren ikuspegitik. Nolanahi ere, elkartearen lankidetzak ez du inola ere gutxitu edo murriztuko herriko ikastetxeek eskola kirolarekiko duten erabaki gaitasuna.

1. Eskola kiroleko programan egiten diren ekintzen osagarri izango dira Iraurgi saski baloi taldeak benjamin zein alebin kategorietako jokalariei eskainitako ekintzak (Saskibaloi Eskola); beraz, Saskibaloi Eskolan aritzen direnek eskola kirolean izena emanda izan beharko dute.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2. Bateragarriak izan behar dute Iraurgi saski baloi taldeak antolatutako lehiaketa eta entrenamenduak eta eskola kiroleko programaren egutegi eta ordutegiak; hala, eskola kirolari egokituko zaizkio klubaren programak.

3. Iraurgi saski baloi taldeak egiten dituen ekintzetarako beharrezkoak diren eskola-lizentziak tramitatuko ditu Azkoitiko eskola kirolaren egiturak.

SASKI BALOIA: Aurretik adierazitakoarekin batera, herriko saskibaloia plangintzaren programa prestatuko du, herriko ikastetxe guztien artean egindako jarduera planekin bat. Azkoitiarrek aukeran izango dituzten saskibaloia jarduera guztiak jaso behar ditu programak, haien ezaugarriak (lehiaketa edo sustapena), esparruak (ikastetxeak edo kluba) eta egutegia.

HIRUGARRENA: Azkoitiko Udalak, Iraurgi saski baloi taldeari HOGEITA HAMAR MILA EUROKO (30.000euro) diru-laguntza emango dio programan aurreikusitako ekintzetarako, 2022ko udal aurrekontuko partida honetatik: 1.3000.481.341.00.05. Diru-laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Iraurgi saski baloi taldeak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2021/2022ko programa eta jardueren proiektua.
- 2021/2022eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.

LAUGARRENA:

- Aurkeztu den programaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publikitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Kultura Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehenetsia emango zaio euskarari.
- Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

BOSGARRENA:

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

5.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legeko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren orde



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu gastu guztiaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezin go da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioren bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

5.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuen tzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

5.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen behar-ko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2022ko irailaren 30ean amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurrizteko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2023ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.
- Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Kultura Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta Iraurgi saski baloi taldearen gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Iraurgi saski baloi taldeari.

ZAZPIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Iraurgi saski baloi taldean lanean ari diren langileez eta Iraurgi saski baloi taldea izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Iraurgi saski baloi taldeak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke aukeraren inguruan.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMARGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Alkateak
Javier Zubizarreta Zubizarreta



Iraurgi saski baloi taldeko lehendakariak
Maier Lizaso

2022 UZT. 07



Egiastapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9c4de00a-7c6c-4703-9817-90cda2e5216f**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiastapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>